HERRIA

17.09.2020

## Aiherra

**Mattin Durruty eta Xabi Harguindeguy pilotariek finalean galdu**

Frantziako txapelketaren kondu, Mattin Durruty eta Xabi Harguindeguy pilotari gazteek, esku huska, joan den igande arratsaldean galdu zuten, Donapaleuko plazan, Itsasuko Xabi Carricart eta Estebe Parachuren aurka, 30 / 11. Aldi huntan pare gotorra zuten parean, halere sasoin ederra egin dute.

Biba zuek deia hortara heldurik eta segi aitzina, istantean trinketeko txapelketa hasiko baita.




*Ezkerretik eskuinera: Xabi Harguindeguy, Cedric Noblia trebetzailea eta Mattin Durruty*